

1. NEGOZIO-EREDUA OPTIMIZATZEKO

Gauzak hobeto, azkarrago eta merkeago funtzionatzea.

Gure proiektuan, adibidez:

-Energia sortzeko lur bereziak: instalatuko dituzten enpresek sistema eraginkorragoa jartzen lagunduko dute.

-Energia biltegitratzeko bateriak: hornitzen dituzten enpresek, energia galdu gabe gordetzea ahalbidetzen dute.

-Soinu eta argi hornitzaileak: ekipamendu egokia jartzen dute, energia gutxiago gastatzeko eta festak hobeto funtzionatzeko.

Bazkide hauen laguntzarekin, gure diskoteka eraginkorragoa izango da eta energia aurrezteko lortuko dugu.

2. ARRISKUAK MURRIZTEKO

Proiektu berritzaile honek arrisku batzuk ditu: arazo teknikoak, kostu handiak, mantentze-lanak... Bazkideek eta hornitzaileek arrisku horiek murrizten dituzte.

Adibidez:

-Teknologia enpresa espezialistekin lan eginez, lurak ondo funtzionatuko du eta matxurak gutxiago izango dira.

-Energia kudeaketa profesional batek segurtasuna bermatzen du: bateriak ez dira gehiegi berotuko eta dena segurtasunean dago.

-Obra enpresak lokalaren egitura seguru eta egokia prestatzen badu, etorkizunean arazo gutxiago egongo dira.

Hau guztia ez egiteak arrisku handiak ekarriko lituzke: gastu gehiago, matxurak, segurtasun arazoak...

3. BALIABIDEAK ESKURATZEKO

Gure diskotekak behar dituen gauza asko ez ditugu guk geuk egingo edo sortuko:

- Lur teknologikoa
- Bateriak eta karga sistemak
- DJ ekipoa eta argiak
- Eraikuntza eta instalazio lanak
- Marketina eta komunikazioa
- Garraio jasangarrirako kontrolatzeko sistemak (deskonturako)

Horiek guztiak hornitzaileen eta bazkideen bitartez lortzen dira. Haiek gabe, ezingo litzateke proiektua martxan jarri, ez baititugu baliabide horiek guk bakarrik sortu.